


Euskal AEko enplegatuek % 1,5 egin zuten gora 2025eko urtarrilaren 1ean

Bilbo Handiak, Donostialdeak eta Arabako Lautadak enplegatuen % 68,9 biltzen dute

2025eko urtarrilaren 1ean Euskal AEko enpresa-sareak bilakaera erakusten zuen: aurreko urtearen aldean enpresa aktiboaren kopurua % 0,8 murriztu zen bitartean, hauek sortutako enplegua % 1,5 hazi zen, Eustaten datuen arabera. Guztira, 164.138 establezimendutan (fabrikak, saltokiak, bulegoak...) banatutako 146.404 enpresa aritzen dira hainbat jarduera-sektoretan.

≡ Euskal AEko establezimenduetako enplegatuek, eskualdeen arabera . 2025



Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Eskualdeen arabera, enplegatuen kontzentrazio handia ikusten da Bilbo Handian (% 38,9), Donostialdean (% 16,6) eta Arabako Lautadan (% 13,3); 3 eskualde horietan Euskal AEko enplegu osoaren % 68,9 biltzen da, batez ere *Zerbitzuen* sektorean oinarrituta. Eskualde horien atzetik, Durangaldea (% 4,9), Debagoiena (% 3,4) eta Goierri (% 2,9) daude, guztiak *industria*-osagai handiarekin.

Enpleguaren aldakuntzari dagokionez, aurreko urtearen aldean, enplegua Euskal AEko batez bestekoaren (% 1,5) gainetik kokatu zuten jarduera-sektoreak honako hauek izan ziren: *Informazioa eta komunikazioak* (% 4,8), *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna* (% 2,8), *Eraikuntza* (% 1,9) eta *Arte-jarduerak eta beste zerbitzu batzuk* (% 1,6).

Azken 5 urteetako bilakaera kontuan hartuta, Euskal AEko establezimenduen kopurua % 3,4 jaitsi da, pixkanaka eta antzeko moduan 3 lurralde historikoetan. Aldiz, aldi horretan enplegatutako pertsonen kopurua % 5,5 igo da.

Egitura ekonomikoari dagokionez, establezimendu gehien izan zituzten jarduera-sektoreak *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* (% 34,8) izan ziren; ondoren datoz *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,3), *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza* (% 12,3) eta *Eraikuntza* (% 11,6).

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera (A10) lurralde historikoari jarraiki. 2025/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Pertsona enpleguak	Aldak. %	Pertsona enpleguak	Aldak. %	Pertsona enpleguak	Aldak. %	Pertsona enpleguak	Aldak. %
Guztira	100,0	1,5	100,0	1,2	100,0	1,4	100,0	1,7
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	1,0	-2,8	1,6	-2,5	0,8	-2,9	0,8	-2,9
Industria, energia, saneamendua	19,4	0,7	25,1	1,1	15,0	1,1	23,1	0,1
Eraikuntza	5,9	1,9	4,5	3,4	6,7	2,0	5,5	1,1
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	25,0	0,8	22,9	1,1	25,5	0,4	25,2	1,1
Informazioa eta komunikazioak	2,9	4,8	1,9	6,3	3,7	3,3	2,1	8,4
Finantza jarduerak eta asegurak	1,6	0,9	1,1	1,9	1,9	0,5	1,3	1,4
Higiezin jarduerak	0,5	0,8	0,4	2,7	0,6	-0,7	0,5	2,7
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	14,6	1,1	12,4	-1,6	16,4	0,6	12,9	3,3
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	24,6	2,8	25,9	1,9	24,6	2,9	23,9	3,0
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	4,6	1,6	4,2	2,2	4,8	2,0	4,6	0,6

Data 2025eko Abenduaren 10a

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Euskal AEko **langile kopuruaren** arabera, % 25,0 *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* kontzentratu zen, eta ondoren *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza* (% 24,6) eta *Industria eta energia* (% 19,4).

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak enplegatuen % 50,0 bildu zuen, Gipuzkoak % 33,2 eta Arabak % 16,8. Bizkaian eta Gipuzkoan, *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* sektoreak lurraldeko enplegu guztiaren % 25,5 eta % 25,2 bildu zuen, hurrenez hurren. Araban, aldiz, sektore nagusia *Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza* izan zen, enplegu guztiaren % 25,9 bilduz. Aurreko urtearekin alderatuta, enplegatutako pertsonen kopuruaren hazkundeari dagokionez, 3 lurraldeetan *Informazioa eta komunikazioak* sektorea nabarmendu zen, % 6,3ko hazkundearekin Araban, % 3,3koarekin Bizkaian eta % 8,4koarekin Gipuzkoan.

Euskal AEn jarduten duten **enpresen nortasun juridikoaren** arabera, establezimenduen % 53,5 *Pertsona fisikoei* dagokie, eta ondoren *Sozietate mugatuak*, guztizkoaren % 29,7ekin. Aldiz, enplegatuen bolumen handiena *Sozietate mugatuak* (% 36,0), *Sozietate anonimoetan* (% 21,4) eta *Bestelako lege-formetan* (% 15,7) biltzen da.

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan, jarduera-adarren arabera (A10), lurralde historikoari eta sexuari jarraiki. 2025/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	54,7	45,3	56,2	43,8	54,2	45,8	54,7	45,3
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	78,4	21,6	77,0	23,0	81,7	18,3	74,9	25,1
Industria, energia, saneamendua	78,5	21,5	79,4	20,6	78,8	21,2	77,9	22,1
Eraikuntza	88,9	11,1	88,4	11,6	88,7	11,3	89,5	10,5
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	53,7	46,3	54,3	45,7	53,9	46,1	53,0	47,0
Informazioa eta komunikazioak	64,4	35,6	65,1	34,9	64,3	35,7	64,4	35,6
Finantza jarduerak eta aseguruak	43,2	56,8	43,3	56,7	44,0	56,0	41,6	58,4
Higiezin jarduerak	45,5	54,5	40,9	59,1	45,8	54,2	46,5	53,5
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	49,6	50,4	50,7	49,3	50,1	49,9	48,1	51,9
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	32,4	67,6	33,0	67,0	33,0	67,0	31,2	68,8
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	45,2	54,8	44,8	55,2	46,3	53,7	43,8	56,2

Data 2025eko Abenduaren 10a

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sexuaren arabera, Euskal AEko 2024ko enplegatuen % 45,3 emakumeak izan ziren — aurreko urtean baino zertxobait gehiago—.Sektore feminizatuenak, aurreko urtean bezala, honako hauek izan ziren: *Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak* (emakumeen % 78,0), *Hezkuntza* (% 67,1) eta *Beste zerbitzu batzuk* (% 62,7). Aitzitik, enplegua gehienbat maskulinoa izan zen *Eraikuntzan* (% 88,9), eta *Industrian* eta *Lehen Sektorean* (% 79 inguru); horien atzetik dator *Garraioa eta biltegiatzea* (% 77,7).

Establezimenduen jardueraren euskarri diren **enpresa guztietatik** (unitate juridikoak), % 96,7k Euskal AEn zuten egoitza, eta gainerako % 3,3k (4.882 enpresa) Estatuko beste leku batzuetan. 100 langile edo gehiago zuten enpresen artean, % 77,4k Euskal AEn zuten egoitza. Euskal AEn egoitza zuten enpresen erdia baino gehiago Bizkaian zeuden —73.581 enpresa (% 52)—, Gipuzkoan 48.040 zeuden (% 33,9) eta Araban 19.901 (% 14,1).


Enpresen batez besteko tamaina zertxobait igo zen: 6,6 langile enpresako (6,4 duela urtebete) eta 5,8 langile establezimenduko (5,7 langile 2024an). Forma juridikoa *Pertsona fisikoa* denean, batez bestekoa 1,4 langilekoa da; *Sozietate anonimoen* kasuan, berriz, batez bestekoa 25,6 langilekoa izan zen, *Sozietate mugatuen* kasuan 7,1ekoa, *Beste sozietate eta elkarte batzuen* kasuan 8,7koa eta *Bestelako lege-formen* kasuan 40,1ekoa.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresen adinari dagokionez, euskal enpresen gaztetasuna azpimarratu behar da. Euskal AEn jardun zuten enpresen % 29,7k bost urte edo gutxiagoko antzinatasuna zuen, eta % 14,8ra iristen zen bi urte edo gutxiagoko ehunekoa.

Establezimenduko jaiotza-eta heriotza-tasak

Euskal AE



Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta ixteari buruzko estatistika

Txandakatzeari dagokionez, eta establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuta, 2024an 13.335 establezimenduk hasi zuten jarduera eta 14.411k amaitu zuten; hala, azken saldo negatiboa 1.076 establezimendukoa izan zen. Establezimenduen sorrerata (sortutakoen eta stocken arteko zatidura) % 8,1ekoa izan zen eta heriotza-tasa % 8,8koa. Ondorioz, hazkunde-tasa garbia negatiboa izan zen (–% 0,7).

Txandakatze handiena *Merkataritza, garraio eta ostalaritzan* izan da —alta guztien % 29,1 eta baja guztien % 32,4—; *Jarduera profesional eta lagungarrietan*, altak % 17,3 eta bajak % 18,0 izan dira; eta *Eraikuntzan*, altak % 16,8 eta bajak % 17,7.

Nortasun juridikoa kontuan hartuta, *Pertsona fisikoek* eragin zituzten alten % 66,7 eta bajen % 64,6. Enplegatuei dagokienez, establezimenduek enplegatutako pertsona berrien % 42,4 hartu zuten, eta desagertutako establezimenduetakoen % 42,8. *Sozietate mugatuak* ere nabarmentzen dira, alta emandako establezimenduetan pertsonen % 39,2rekin eta baja emandako establezimenduetan % 35,0ekin.

Establezimenduen demografia Euskal AEn. 2025/01/01

	Altak	Irteerak
Guztira	13.335	14.411
Jardueraren arabera		
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	176	298
Industria, energia, saneamendua	542	668
Eraikuntza	2.235	2.544
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	3.885	4.665
Informazioa eta komunikazioak	579	415
Finantza jarduerak eta aseguruak	303	334
Higiezinen jarduerak	343	350
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.308	2.600
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	1.673	1.400
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.291	1.137
Nortasun juridikoaren arabera		
Pertsona fisikoa	8.894	9.311
Akzioakako elkarteak	189	416
Elkarte mugatua	3.311	3.572
Bestelako elkarteak	891	1.083
Bestelako lege-formak	50	29

Data 2025eko Abenduaren 10a

Iturria: Eustat, Enpresak sortzeari eta itxeari buruzko estatistika

Establezimenduen tamainaren arabera, estratu dinamikoena 2 langile edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Estratu horrek alta guztien % 91,1 eta baja guztien % 91,2 erregistratzen ditu.

Aitzitik, beste muturrean, 20 langile edo gehiago dituzten establezimenduen estratuak alten zein bajein % 0,6 baino ez dira. Aldiz, establezimendu berrietan enplegatutako pertsona guztien % 13,8 hartzen du, baita establezimenduetako bajena ere.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62